

# BAKEA ETA EMAKUMEAK

## Habanako bake prozesua aitzindaria izan da genero azpibatzerde bat sortzen

 **KOLONBIA** / Ainara Lertxundi

Habanako bake prozesuaren baitan, Gobernuak eta FARCEk genero azpibatzerdea osatu zuten, agendaren atalak genero ikuspegi batetik aztertzeke. Emakumeek izandako parte hartzea, negoziatzaileekin izan zituzten harremanak eta jaso zuten aitortza aztertu dute Humanas taldeak eta CIASE ikerketa korporazioak.

**E**makumeak Habanako prozesuan. Bizipenak, ekarpenak eta aitortza»; ikerketa hori aurkeztu berri dute Humanas taldeak eta CIASE Ikerketa Korporazioak Kolonbian. Bake prozesuaren baitan emakumeek izan zuten protagonismoa aztertu dute.

Agendaren sei atalak genero ikuspuntutik aztertzeke, FARCGerrillak eta Gobernuak genero azpibatzerdea osatu zuten 2014ko irailaren 7an. Ondorioak 2016ko uztailaren 24an aditzera eman zituzten Habanan, Nazio Batuetako goi mailako ordezkariekin batera eginiko ekitaldian. Gonbidatuaren artean ondorengoak egon ziren: NBE Emakumeak erakundeko zuzendari exekutibo Phumzile Mlambo-Ngcuka hegoafrikarra eta erakunde honetako Latinoamerikako eta Kolonbiako ordezkariak, Luiza Carvalho eta Belen Sanz, hurrenez hurren; Nazio Batuetako enbaxadore kolonbiarra, Maria Emma Mejia; eta Kuba eta Norvegiako ordezkariak. Nazioartearen sostengua islatu zuen aurkezpen hark. Ordura arte egindako lana ez zela bigarren mailakoa izan aldarrikatu nahi izan zuten.

«Emakumeek bake prozesuari egindako ekarpena aitortze

koa funtsezkotzat jotzen dugu Hori izan da ikerketaren abiapuntua. Bake Akordioa bera garrantzi handikoa da Kolonbiarentzat, eta negoziazio prozesu baten baitan genero azpibatzerde bat osatzea erabaki aitzindaria izan da. Prozesuan esku hartu zuten emakumeak identifikatzeaz gain, beraien bizipenak ezagutu nahi izan ditugu, nola jokatu zuten eta nolakoak izan ziren gainontze-

ko negoziatzaileekin izan zituzten harremanak. 2016ko irailetik abendura, 16 elkarrizketa egin genituen Bogotan eta Habanan. Elkarrizketatutakoetatik zazpi Gobernuko ordezkariak ziren; bost FARCEkoak; beste bat aholkularia eta gainerako hirurak nazioarteko lankidetzan nahiz berme-emaile gisa aritu ziren herrialdeetako ordezkariak», azaldu dute ikerketaren egileek.

### HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Negoiazioan parte hartuko zuten emakumeen hautaketa egiterakoan, bakoitzaren presuntakuntza hartu zuten kontuan hainbat irizpideri jarraituz. Gobernuaren kasuan, adibidez, «ikasketa maila eta ordura arte egindako lan profesionala baloratu zuten. Delegazioan justizia trantsizionalean eskarmentua duten abokatuak zeuden, arlo des-

berdinetan adituak –giza eskubideak, gatazka armatua eta haurtzarora, gai militarrek, zientzia politikoak, biktimen eskubideak eta horien erreparazioa, zuzenbide humanitarioa eta nazioarteko harremanak–. Gehienak Estatuarentzat ari ziren lanean aipaturiko arlo horietan, negoziazioa hasi aurretik.

FARCEko emakumeei dago kienez, zuzendaritzak hainbat irizpide erabili zituen, hala nola gerrillan zeramaten denbora, beraigengako konfiantza, hizkuntzak jakitea eta gizarte eragileekin hartu-emanetan izaniko esperientzia. Gerrillan askok kazetari lana egiten zuten, barne komunikazioen edo irratiazen arduradunak ziren, beste batzuk kanpalekuetan hezkuntza programak antolatzen zituzten edo lan politikoa egiten zuten. Faktore horiek hartu zituzten aintzat.

Bi taldeek beste ezaugarri komun batzuk mahaigaineratu zituzten, hala nola enpatia, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna, konponbideak bilatzeko trebezia eta tentsio handiko egoerak baretzeko abilezia.

### EMAKUME TALDEEN GARRANTZIA

Emakumeak Habanako eztabaidagune guztietan ordezkartuta egon ziren. Askotariko ardurak izan zituzten. FARCGen komunikazio batzordean emakumeak gehiengoa izan ziren eta horrek emakume gerrillarien ahotsa eta protagonismoa indartu zuen. Emakume gerrillarien web orrialdea sortu zuten, Mujer Fariana.org delakoa.

Sare sozialetan ere presentzia nabarmena izan zuten. As-tean behin, Habanatik albiste-gi bat egiten zuten, aurkezleak Alexandra Nariño eta Boris Guevara izanik. Emakumeak

«Emakumeak Habanako prozesuan» ikerlanaren aurkezpena Bogotan.  
GAUR8



nagusi ziren albistegietako atal desberdinetan.

Habanako prozesuaren erdigurean biktimak egon ziren. Biktimez osaturiko bost ordezkaritza joan ziren Habanara beren lekukotasuna ematera. Kolonbiako emakume taldeek ere protagonismo nabarmena izan zuten eta hainbat bidaiara egin zituzten bertara.

«Gizarte zibilari eta emakume mugimenduari esker, negoziazioan geunden bi aldeek ulertu genuen genero ikuspegia aintzat hartu behar genuela. Gerraren ondorio gordinak bizi dituzten emakumeen aldarrikapenei eta borroka historikoari esker, genero azpibatzaordea osatu genuen», azaldu du elkarrizketatu batek. Hasieran lana ez zen erraza izan, batez ere, bigarren mailako zer bait bezala ikusten zelako. Gerora, pentsamolde hori errotik aldatu zen. Prozesuaren amaieran, FARCeke eta Gobernuaren delegazioetako bozeramaileek azpibatzaordeak eta emakumeek egindako ekarpena nabarmendu zuten hainbat forotan. Kideen aitortza gertutik sentitu zuten emakume gerrillariak ere akordioa berresteko FARCeke iaz Kolonbian egin zuen Konferentzian.

«Orduz kanpo elkartzen ginen, gure 'denbora librean' nolabait esatearren. Sakrifizio handia izan zen hori. Goizeko bostetan esnatu behar genuen askotan, bildu ahal izateko».

Genero azpibatzaordean aurreikusita ez zeuden gaiak jorratzea lortu zuten, horien artean sexu bortizkeria eta emakumeen eta haurtzaroren eskubideak. «Bihotz-bihotzetik lan egiteak atak zabaltzen lagundu» zuela adierazi dute. Afariak, bazkariak, koktelak... harremanak sakondu eta sendotzeko, «bestea» hobeto

ezagutzeko eta ulertzeko eta hierarkiak lausotzeko leku aproposak bihurtu ziren momentu askotan. Askotariko iritziak izan arren, azpibatzaordea aurrera ateratzea zen guztien helburua eta horrek lanak arrakasta izatea bermatu zuen.

#### «GIZONEZKOEN GIROAN»


«Gizonezkoen giro» horretara egokitu behar izan zutela adierazi dute askok. «Hasierako urduritasuna gainditzeko ikasi behar izan nuen. Pixkanaka neure buruarekiko konfiantza sendotuz joan nintzen. Justiziaren gaia jorratzen hasi ginen, mahaiairen parte ez ziren abokatuak aholkularitza eskatu zitzaizkien. Hori une gozorra izan zen niretzat, zeren eztabaida juridiko sakon bat izateko gaitasuna eta eskumena nituen arren, abokatu horietako bat ez zegoen emakume batekin eztabaidatzeko prest. Ez ninduen mintzaide gisa ikusten. Epaila izandako gizonezko batekin eztabaidatu behar zuten bera ondo sentitzeko. Momentu horretan, hausnarketa feminista bat egiteko beharra sentitu nuen».

«Gauzak ez dira errazak izan guretzat, gizarte kolonbiarraren izaera patriarkala baita. Ni, esaterako, komunikazioen arduraduna nintzen. Kamerariaren batek arazoren bat zuenean, gizonezko batengana jotzen zuen eta hark nirekin hitz egin behar zuela esaten zion, ni bainintzen arduraduna. Pixka bat frustragarria da, baina horrelakoa da errealitatea eta aldatu beharra dugu», gaineratu du beste batek.

Nekazaritza erreformaren gaian, emakumeen ahalduntzea eta protagonismoa bultzatzea izan zuten jomuga, bereziki, emakume baserritarrei lursailen jabe izatea erraztea,

**«Orduz kanpo elkartzen ginen, gure 'denbora librean' nolabait esatearren. Sakrifizio handia izan zen hori. Goizeko bostetan esnatu behar genuen askotan bildu ahal izateko»**

**«Gizarte zibilari eta emakume mugimenduari esker, negoziazioan geunden bi aldeek ulertu genuen genero ikuspegia kontuan hartu behar genuela», adierazi dute hainbat protagonistak.**



Alexandra Nariño gerrillari eta negoziatzaile ohia. GAUR8

jabetza formalizatzeko trami- teetan lagunduz eta aholkularitza teknikoak ahalbidetuz. Emakume nekazariak ordezkatzeko dituzten erakundeak akordioaren inplementazio edo gauzatzean esku hartzea garrantzitsua dela adostu zuten.

Parte hartze politikoari dagokionez, aurrerapausotzat jo zuten elkarrizketatuko ema-

kumeek politikan eta erabakiguneetan esku hartzeko jasan dituzten oztopoak eta pairatu duten diskriminazioa aitortzea. Giza eskubideen ekin- tzaileak babesteko eta politikan emakumeen presentzia areagotzeko harturiko neurriak ere nabarmendu zituzten. Gatazka armatuaren testuinguruan gertaturiko sexu indarkeria azaleratzea eta am-

nistiarik jaso ez dezakeen delitu bihurtzea lorpen garrantzitsutzat jo zuten. Baita Egiaren Batzaordeak genero ikuspegia barneratzea ere.

Ez zuten sekula pentsatu genero azpibatzaordea ezinbesteko tresna izango zenik: «Ardu- ra handia dugu gure gainean, ez bakarrik genero ikuspegia Kolonbian errealitate bat izan dadin, baizik eta bestelako prozesuak abian ipiniko dituzten herrialdeei genero ikuspe- gia kontuan hartzearen beharra azaltzeko. Gerraren ondorioak modu gordinen pairatu ditugu emakumeok».

#### GERRILLARI OHIEN AHOTSA

Gaur8ekin eginiko elkarrizketan, Camila Cienfuegos gerrillari ohiak gatazka armatu batean gehien sufritzen duena gizarte zibila dela nabarmendu du. Hasieratik egon zen Habanako prozesuan. Prentsa arduraduna izan zen eta genero azpibatzaordean parte hartze aktiboa izan zuen.

«Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak gerraren ondorioetan ere antzematen dira. Emakumeak ekin- tza basatiagoen eta krudelagoen biktimak gara. Emakumeek familiaren ardu- ra beren gain hartu behar izan dute. Kasu batzuetan, lurra galtzeaz gain, beraien sustaiak eta familia giroa galdu dute; seme-alabekin hirietara ihesi joatera behartuta egon dira. Baldintza horietan gizarte-bazterketa sufritzeko aukera handiagoa dute, sektore ahulena dira eta», plazaratu du gerraren zauriei buruz galdetuta. «Edozein gerra testuingurutan gertatzen den bezala, emakumeak sexu indarkeriaren biktimak dira. Gizonezkoen gorputza ez dute trukeko txanpon gisa erabiltzen. Gerri-

llari askotan leporatu zaio bor-txaketak egin izana. Hori ez da sekula ere gertatu; FARCen bai-tan ez da sexu esplotaziorik egon. Hori argi utzi nahi dut. Erakundearen baitan, emaku-meok askatasun osoa izan du-gu norekin egon nahi dugun erabakitzeke; gezur borobila da gu, gerrillari izandakoak, sexu esklaboak izan garela. Gure ki-deekin batera borrokalariaik izan gara, baldintza berbere tan», esan du Cienfuegos.

Oinazea eta atsekabea han-diak izan badira ere, «erreku-peratzeko gaitasuna» nabar-



Genero azpibatzerdeko kideak, Kolonbiatik iritsitako eragileei harrera egiten Habanan. KOLONBIAKO GOBERNUA

mendu du. «Emakumeok gure familiarengatik, komunitate-rengatik... aurrera egiteko eta borrokatzeke –baita armekin ere– gaitasuna dugula erakutsi dugu». «Genero ikuspegiak ba-

kea eraikitzeke beharrezkoak diren aldaketa sozial guztiak zeharkatzen ditu eta gizartearen zati garrantzitsu bati balioa ematen dio. Orain, emakumeak ahaldundutzeke politika

publikoak behar ditugu, batez ere nekazaritza gunetan, horiek baitira gatazkak gehien kolpatu dituen eremuak. Sistema patriarkala iraultzea ahalbidetuko dute ekintza horiek

guztiekin. Emakumea lurraren jabe izatea edo jabeakidea izatea berez iraultza bat da!», baieztatu du. «Gure asmoa erakundearen baitan emakume gerrillariok izan ditugun eskubideak eta askatasuna gizarteko gainerako sektoreetara zabaltzea da. Bai gatazkan bai Habanan emakumeon presentzia zabala izan zen», gaineratu du.

Victoria Sandino komandan-tea izan zen gatazkan. Habanan, negoziatzaile guztiahalduna izan zen eta FARCen aldetik genero azpibatzerdeko buru.

Adriana Benjumea Humanas-eko zuzendaria da. Elkarrizketa mahaian lortutakoa ez du galdu nahi akordioa praktikan jartzean. Akordio horrek emakumearen parte hartzea aitortzen duela eta zehazki emakumeei begira adostutako 122 neurri jasotzen dituela nabarmendu du.

**Zerk bultzatu zuen ikerlan hau?**

Kolonbiako bake prozesua eta FARCEkin sinaturiko hitzarmena emakumeen lanari esker ere gertatu ziren baina, askotan, emakumeen ikuspuntua ez da agerikoa, ikusezina da. FARCEko gerrillariak, Gobernuaren ordezkariak, bai eta nazioarteko lankidetzan jarduten duten emakumeek ere, gogotik lan egin zuten bost urtez. Kolonbiarrek ez dituzte ezagutzen emakume horiek guztiek egin zituzten ekarpenak. Habanako mahaian ordezkaritza izan zuten emakumeen ahotsa eta apustu politikoa berreskuratu nahi genuen. Ikerketa hau egiteko beraiei zuzenean galdetu genien. Batzuen izenak ezagunak dira; beste batzuenak, ordea, ez. Liburuaren azken atalean, prozesuan esku hartu duten 140 emakumeen zerrenda osatu dugu.

**Zer iruditu zitzaizkien liburua egitearen proposamena?**

«Bakea geldiezin da. Gainera, ezin dugu pikutara bidali bost urte luze hauetan lortutakoa eta, horretarako, nazioartea beharrezkoa dugu»

**ADRIANA BENJUMEA**

**HUMANAS-EKO ZUZENDARIA**

Ba, pasadizo bat kontatuko dizut. Elkarrizketa adosteko telefonoz deitu nienean, «zer, niri elkarrizketa bat? Zergatik niri?» galdetzen zuten gehienek harrituta. Askok seme-alabak, senarra, familia atzean utzi behar izan zuten Habanara denbora luzez joateko. Eta hala ere, ez zitzaizkien burutik pasatu ere egiten norbaitek elkarrizketatu zitzaizkien bake prozesuari eginiko ekarpen baliotsuagatik. Beste batzuek hau esan zidaten: «Benetan gauza garrantzitsuak egin zituenenak hura izan zen». Emakumeen arteko aitortza hori oso ederra iruditu zitzaizkien. FARCEko gerrillariak, esaterako, prozesuaren hasieran Habanara joaten ziren kazetariak beti beraiei bizipen pertsonalei buruz galdetzen zieten

adierazi zuten. Ea ezkondu zirenen, ea seme-alabarik bazuten, ea noizbait aborturen bat izan zuten eta abar. Baina ez zieten galdetzen negoziatzaile edo beraiei ikuspuntu politikari buruz, subjektu politikoak izanik beraiei ere. Denborarekin, komunikabideak egiten zizkieten galdera motak aldatuz joan ziren eta protagonismo handiagoa izan zuten. Nolabait esatearren, eskertu zuten lan honetarako subjektu politiko gisa elkarrizketatu izana.

**Genero azpibatzerdea erreferente bihurtu da bake prozesuetan. Aitortzak zer suposatzen du Kolonbiarentzat?**

FARCEkin sinaturiko bake akordioa ondare bat da ez bakarrik

kolonbiarrentzat, baita mundu osoarentzat ere. Kolonbiako genero azpibatzerde bat osatu duen lehenengo bake prozesua izan da eta, lehen aldiz, hitzartutako guztia genero ikuspegi batetik egin da. Erreferente honekin, beste edozein prozesuk ezin izango die bizkarra eman emakumeei eta bakearen eraikuntzan emakumeen ekarpena aintzat hartu beharko dute. Nekazaritza-erreformari buruz ari garenean, gerraren ondorioz lur eremuak galdu zituzten emakumeei laguntzeko neurriak aurreikusten ditu bake akordioak, edo gerrillan egondako emakumeen birgizarteratzea bermatzeko berariazko irtenbideak. Eta horrela, agendaren atal guztiekin. Orotara, emakumeei begira zehazki pentsatutako 122 neurri jaso zituen genero azpibatzerdeak.

**Nazioarteko aitortza, ordea, ez dator bat gizarte kolonbiarren hainbat sektoreen harrerarekin. Iazko**

**«Gerrillari askotan leporatu zaio bortxaketak egin izana. Hori ez da sekula ere gertatu, FARCen baitan emakumeok askatasun osoa izan dugu. Hori argi utzi nahi dut»**

Egun, FARCEk sortu duten talde politikoaren zuzendaritzan dago, baita bake akordioaren gauzatzea behatzeko sortutako batzordean ere. Emakumeen eta gizonen birgizarteratzean ere desorekak daudela dio: «Gizonezkoak heroi gisa ikusten ditugizarteak, komunitateetan sor daitezkeen arazo sozialak konpontzeko gaitasuna dutenak. Emakumeak, aldiz, estigmatizatu egiten ditu. Familiak berak alboratu egiten ditu eta seme-alaben arbuioa jasaten dute beraien zaintza lana egin ez izanagatik. Zegokien ardura

**«Lehen aldia zen mundu mailan bake prozesu baten baitan genero azpibatzerde bat sortzen zena. Bakea ez da soilik fusila isiltzea; etxean, lantokian, gure barrenean... ere behar dugu»**

ez betetzeagatik komunitatearen gaitzespena dute. Egia esan, gatazka armatu bat bukatzean, emakumeek bizi duten errealitatea korapilatsuagoa da. Genero ikuspegia barnerratu izanak emakume gerrillarien birgizarteratzea zehazki lantzea ahalbidetuko du».

«FARCEko zuzendaritzak emandako mandatua izan zen. Maila pertsonalean, ardura handia izan zen niretzat eta etengabeko irakaspena. Emakumeen borrokak hobeto ulertzen lagundu dit. Borroka horiek gure herriak behar duen bakea eta justizia soziala lor-

tzeko uztartu nahi ditugu». Alexandra Nariño ere azpibatzerdeko kidea izan zen. Bere hitzetan, «urrats historikoa izan zen; lehen aldia zen mundu mailan bake prozesu baten testuinguruan horrelako zer-bait egiten zena! Guretzat bake akordioa gizarte bidezkoago bat eraikitzen hasteko abiapuntu bat da; eraikuntza hori ez da posible emakumeon ahotsik gabe. Bakea ez da fusilak isilaraztea soilik; bakea etxean, lantokietan, kalean eta gure barrenean egin behar da. Bakea egonkorra eta iraunko-

rra izan dadin, egun Kolonbia dugun indarkeria matxista desagertu behar da».

«Buruan genituen helburuak betetzeko arretaz lan egin genuen bi aldeek. Erabat sinetsita geunden gaia landu beharra zegoela. Horrek ez du esan nahi gure artean desadostasunik ez zegoenik; askotan eztabaida gogorrak izan genituen azpibatzerdean, baina beti ere errespetu osoz. Gerrillan egondako emakumeok egiturazko aldaketak aldarrikatzen ditugu, ez azaleko aldaketak soilik».

**urriaren 2an egindako galdeketa, ezezkoak irabazi zuen, hein handi batean, akordioaren genero ikuspegia desitxuratu zutelako eskuin muturrekoek.**

Tamalez, genero ikuspegiak Kolonbian piztu zuen eztabaida manipulatu zuten eskuindarrek beren mesederako. Dena den, ez zuten beren helburua bete, xedea bake akordioa bertan behera uztea baitzen. Ezezkoak irabazi izana oso mingarria izan zen, batez ere genero ikuspegi hori lortzeko hain gogor lan egin zuten emakumeentzat. Zorionez, bi aldeek egoerari buelta eman zioten eta akordioaren oinarritzko edukia bere horretan mantendu zuten.

**Harritu zintuzten bai eskuinak bai erlijio desberdinetako ordezkariak egindako adierazpenek? Akordioaren helburua Kolonbian «diktadura homosexuala» ezartzea zela esatera iritsi ziren.**

Eskuindarra Kolonbian oso maltzurra da. Gerra telebistatik besterik ez du ezagutu eta gatazka armatutik etekina ateratu du. Prozesuaren akats txikiak aprobetxatu zituen horren kontrako kanpaina egiteko eta akordioaren aldeko kanpaina berandu ibili zen. Motz gelditu zen eta gogotik ordaindu genuen hori kolonbiarrok. Hiri handietako auzoetan Habanan zertaz



hitz egiten ari ziren ez jakiteak mesede egin zion ezezkoaren kanpainari. Gezurretan ibili dela aitortu behar izan zuen eskuinak.

**Armagabetze prozesua amaitu du gerrillak. Hala ere, Gobernuaren aldetik atzerapenak nabarmenak dira. Nola baloratzen duzu egoera?**

Bakea geldieztina da eta aurrera jarraitu behar dugu. Inplementazioa ez da sekula erraza izan. Hauskortasun handiko prozesua da. Ekintzaileen heriotzak eta atzerapenak erakusten dute bidea luzea izango dela, akaso guk uste genuena baino luzeagoa. Sinatu izana oso garrantzitsua da, baina orain ezin dugu elkarriketa-mahaian lortu duguna inplementazioarekin galdu. Inplementazioa geldoa da, Gobernuak ez du esandakoa bete. FARCEk, aitzitik, emandako hitza bete du eta Kolonbiak hori aitortu beharko dio gerrillari. Behar-beharrezkoa da nazioarteko komunitateak Kolonbiari begira jarraitzea, zeren herri honek bakea behar du. Ezin dugu pikutara bidali bost urte luze hauetan lortutako guztia. Era berean, ELNrekiko elkarriketa-prozesuari bultzada eman behar diogu kolonbiarrok eta horretan ere nazioarteko komunitateak zeresan handia du.